



## **BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA**

*Oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia, euskaratik eta euskaraz ere bizitzeko hautua egingo duen hiztun komunitatea elikatzeko helburuz, Laborategiaren jarduna gidatuko duen leinari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabalduko eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak emateko.*

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko Gobernu Batzordeak, 2025eko martxoaren 27ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Laborategia patzuergoa da, eta hizkuntzaren eta berrikuntzaren intersekzioan kokatzen da. Hizkuntzatik abiatuta, bi eginkizun ditu: euskararen biziberritze prozesuan berrikuntza txertatzea, eta (gizarte) berrikuntza prozesuetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea. Esperimentazio gune seguru eta irekia izan nahi du, pertsonen arteko berdintasuna sustatuko duena.

Badalaben helburua da ekarpena egitea, bere laborategi izaera horretatik, etorkizunean euskaratik, eta euskaraz ere, bizitzeko hautua egingo duen komunitatea bizi dadin. Helburua lortzeko galdera berriak proposatuko ditu, eta hauei erantzuteko bilatuko ditu ez-ohiko lankidetzak eta egiteko zein egoteko modu berriak.

Guztiaren oinarrian baieztapen bat: euskararen herrian eragile, erakunde, ekimen, proiektu, ideia, pertsona ugari dago martxan, eragiteko gogoz. Badalaben lehentasuna da horiek indartzea, egungo testuinguru konplexutik abiatuta etorkizuneko agertoki eta interakzio sistemetan euskara ere erabiliko dela bermatu eta ekarpena egiteko.

Norabide horretan, aktiboki sustatuko ditu, batetik, euskararen komunitatea elikatuko duten eta ohiko egituretan tokirik ez duten ekimenak edo ideiak, eta, bestetik, hizkuntzaren etorkizunari ekarpena egin nahi dioten askotariko eragile zein pertsonak osatuko duten ekosistema.

Badalab ekimenaren esparruan garatzen diren jarduera guztien zeharkako lau elementu nabarmendu behar dira:

- Hizkuntzari eta hiztun komunitateari lotutako iruditeria, kontakizunak edota diskurtsoak berritzeko eta ez-baian jartzeko beharrari ekarpena egin nahi diote. Etorkizuneko euskararen agertoki desberdinak iradoki nahi dituzte, lagungarri direlakoan oraina arrakalatzeko

## **BADALAB CONSORCIO DE INNOVACIÓN LINGÜÍSTICA**

*Bases reguladoras y convocatoria 2025 para la concesión de becas de creación y mediación que contribuyan al lema que orienta la actuación del Laboratorio y difundan y enriquezcan su programa público, con el objeto de alimentar la comunidad de hablantes que elija vivir desde el euskera y en euskera.*

La Junta de Gobierno del Consorcio de Innovación Lingüística Badalab, en su reunión de 27 de marzo de 2025, ha adoptado el siguiente acuerdo:

El Laboratorio de Innovación Lingüística Badalab es un consorcio situado en la intersección de la lengua y la innovación. Tomando como punto de partida el impulso de la lengua, cumple dos funciones: incorporar la innovación en el proceso de revitalización del euskera e incorporar la variable lingüística en los procesos de innovación (social). Pretende ser un espacio de experimentación seguro y abierto, que fomente la igualdad entre las personas.

El fin de Badalab es contribuir, desde su condición de laboratorio, a la revitalización de una comunidad que opte por vivir desde el euskera y en euskera. Propondrá nuevas preguntas para la consecución del objetivo, buscando colaboraciones no habituales y nuevas formas de hacer y de estar.

En la base de todo ello existe una afirmación: en el mundo del euskera están implicados muchos agentes, instituciones, iniciativas, proyectos, ideas, personas, todas ellas con ánimos de incidir positivamente. La prioridad de Badalab es aportar y fortalecer todos ellos, para garantizar el uso del euskera en los escenarios y sistemas de interacción futuros a partir del complejo contexto actual.

En esta dirección, impulsará activamente iniciativas o ideas que alimenten a la comunidad del euskera y no tengan cabida en las estructuras habituales, así como un ecosistema formado por agentes y personas de diversa índole que quieran contribuir al futuro de la lengua.

Hay que destacar cuatro elementos transversales de todas las actividades que se desarrollan en el marco de la iniciativa Badalab:

- Desean contribuir a la necesidad de innovar y de poner en tela de juicio imaginarios, relatos y/o discursos relacionados con la lengua y su comunidad de hablantes. Quieren sugerir diferentes escenarios de futuro del euskera, con el convencimiento de que



zein egiteko, egoteko eta gure burua kontatzeko moduak eraldatzeko.

- Aniztasunak ezaugarrituko duen hiztun komunitatea dute helburu. Kulturartekotasuna garrantzitsua izanik ere, aniztasuna ulertzen dute bere zentzurik zabalenean, eta hortik proposatzen dira egitasmoak. Begirunea, elkarrekikotasuna, elkar-ahalduntzea... dute oinarrian, beraz.

- Egungo gizarte konplexu eta aldakorrean, zeinetan hegemoniak eta kultura zein hizkuntza handiek agintzen duten, laborategiaren oinarrien artean dago abangoardia euskaraz ere izan daitekeela, eta hortik egiten dira proposamenak. Esaterako, hizkuntzara gerturatzeko estrategia berriak probatuz, komunitategintzan ekarpena egiteko bide berriak probatuz edota mundu mailako erreferenteak gurera ekarriz.

- Urteroko ekintza gidatuko eta zedarrituko du lema batek. Honi ekarpena egingo diote urte barruan proposatuko diren ekimen guztiek.

Badalaben misioa, egiteko modua eta ezaugarriak abiapuntu harturik, Badalabeko lantaldearen egiteko nagusia ez da hainbeste berak egitea, baizik eragitea eta baldintzak sortzea askotariko ekosistema baten artikulaziorako, hau izango delakoan hiztun komunitatea elikatzeke palanka garrantzitsua. Hori da beka deialdien funtsa, hain justu. Lantaldearen irismenetik kanpo dauden ekimenak eta pertsonak identifikatzea eta, hauek indartzen dituen bitartean, laborategiaren jarduna eta programa publikoa aberastea.

Gauzak horrela, erabaki da, alde batetik, Laborategiaren jarduna gidatuko duen lehari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabalduko eta aberastuko duten sormen eta mediazio beken oinarri arautzaileak onartzea, eta, bestetik, onartzea beka horien 2025. urteari dagokion deialdia, 30.000,00 euroan gehienez.

Beka hauek ez dira estatu laguntza, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, lehia ez baitute faltsutzen –ez faltsutzeko mehatxatzen– eta ez baitio eragiten estatu kideen arteko merkataritzari; hori horrela, salbuetsita daude aipatu Itunaren 108.3 artikulua ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza berrikuntzako Gobernu Batzordeak, presidentek hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ayudarán a irrumpir en el presente y a transformar nuestras formas de hacer, de estar y de autorreferirnos.

- Tienen como objetivo una comunidad de hablantes caracterizada por la diversidad. A pesar de la importancia de la interculturalidad, comprenden la diversidad en su sentido más amplio y es desde ahí desde se proponen proyectos. Se basan, por tanto, en el respeto, la reciprocidad, el empoderamiento...

- En la actual sociedad compleja y cambiante, regida por la hegemonía y las grandes culturas y lenguas, entre las bases del laboratorio se encuentra que la vanguardia también puede ser en euskera, y desde ahí se hacen propuestas. Por ejemplo, poniendo a prueba nuevas estrategias de acercamiento a la lengua, nuevas vías de aportación en el trabajo comunitario o aportando referentes mundiales.

- Un lema guiará y acotará la actividad anual. A ella contribuirán todas las iniciativas que se propongan a lo largo del año.

Partiendo de la misión, del modo de hacer y de las características de Badalab, el equipo de trabajo no se centra tanto en acometer proyectos él mismo, sino que más bien trata de influir y crear las condiciones necesarias para la articulación de un ecosistema diverso, que es la palanca importante para revitalizar la comunidad de hablantes. Este es el fundamento de las convocatorias de becas. Identificar iniciativas y personas ajenas al alcance del grupo de trabajo y, mientras trata de reforzarlas, enriquecer la actividad del laboratorio y el programa público.

A la vista de lo expuesto, se acuerda, por un lado, aprobar las bases reguladoras para la concesión de becas de creación y mediación que contribuyan al lema que orienta la actuación del Laboratorio y difundan y enriquezcan su programa público y, por otro, aprobar la convocatoria correspondiente al año 2025 de dichas becas por un importe máximo de 30.000,00 euros.

Estas becas no son una ayuda estatal, ya que, de acuerdo con lo establecido en el artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, no falsifican la competencia, ni amenazan con falsificarla, ni afectan al comercio entre estados miembros, quedando exentas del procedimiento de notificación establecido en el artículo 108.3 del citado Tratado.

En su virtud, la Junta de Gobierno de Badalab, a propuesta del presidente y previa deliberación,



## ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Onartzea “Badalab. Sormen eta mediazio beka” izeneko bekak emateko oinarri arautzaileak. Oinarri hauek erabaki honen eranskin gisa doaz I. eranskinean.

Bigarren.- Onartzea beka horien 2025eko deialdia, erabaki honen II. eranskinean ageri den gisan.

Hirugarren.- Baimentzea hogeita hamar mila euroko (30.000,00€) gastua deialdi horretarako, 1 480.02.02 2025 aurrekontu sailaren kargura.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzordeari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Errenteria, 2025eko martxoaren 28a.—Iker Nocedal Bustamante, idazkaria.

## ACUERDA

Primero.- Aprobar las bases reguladoras de la concesión de las becas “Badalab. Becas de creación y mediación.” Las presentes bases se adjuntan como Anexo I al presente acuerdo.

Segundo.- Aprobar la convocatoria de dichas becas para el año 2025, como se indica en el anexo II.

Tercero.- Autorizar un gasto de treinta mil euros (30.000,00€) para esta convocatoria con cargo a la partida presupuestaria 1 480.02.02 2025.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Contra la presente resolución los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que se haya resuelto expresamente el de reposición o se haya producido la desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Errenteria, 28 de marzo de 2025.—El secretario, Iker Nocedal Bustamante.